

Bigarren hezkuntzako irakaslea naiz, musukoa erabiltzetik salbuetsia. Hurrengo paragrafoetan, Bizitzak gure kasuak ezagutzera emateko eduki duen ekimena aprobetxatuz (eskerrik asko, Bizitza!), ez dut nirea azaldu nahi soilik, hezkuntza sisteman burutzen ari den oinarritzko eskubide eta askatasunen aurkako eraso argira ateratzea nahi dut eta, bide batez, ahaztu edo gogoratu nahi ez dutenei, eskubide besterenezinak negoziatzen ez direla gogora ekarri ere.

Dena gertatu zeneko testuinguru legala aztertuko dugu, 2022ko apirilaren 20a baino lehenagokoa hain zuzen, egoera argi ulertu ahal izateko:

Musukoaren erabileraren derrigortasuna martxoaren 29ko 2/2021 Legeak arautzen du. Ekainaren 24ko 13/2021 Lege-dekretu erreala aurreko Legearen artikulua batzuk aldatzen ditu, besteak beste, musukoaren erabileratik salbuetsia izateko aintzat hartzen diren balizko kasuak jasotzen duena, 6.2. artikulua, alegia. 2022ko otsailaren 8an 115/2022 Lege-dekretu erreala sartu zen indarrean, musukoa erabiltzetik salbuespen kasuak 2. artikuluan jasoz.

[13/2021 Lege-dekretu erreala 6.2 artikulua; 115/2022 Lege-dekretu erreala 2. artikulua berdina]

Aurreko atalean jasotako derrigortasuna ez da eskatuko hurrengo balizko kasuetan:

Musukoa erabiltzeagatik larriagotu daitekeen arnas gaixotasuna edo zailtasuna duten pertsonen, edo beraien ezintasun edo menpekotasun egoeragatik musukoa kentzeko autonomiarik ez daukatenei, edo musukoa erabiltzea bideraezina egiten duten jokabide-asaldurak dituztenei.

Aurreko arau guztien gainetik Espainiako Konstituzioa eta nazioarteko erlazionatutako tratatuak daude.

21/22 ikasturtean ikastetxeetan Covid-19ren aurreko prebentzio neurriak jasotzen dituen Hezkuntzaren Protokolo Orokorra (aurrerantzean Protokolo Orokorra), zeinaren erantzule Lan Arrisku-tako Prebentzio Zerbitzua den (LAPZ), mailarik behereneko xedapena da musukoaren erabileraren derrigortasunari dagokionez. Eta xedapen bat ezin da, inolaz ere, goragoko batekin kontraesanean egon, Legalitate printzipioaren urraketa delako.

Aipatutako protokoloak ez du jasotzen musukoa erabiltzetik salbuetsiak diren langileen existentzia, ikasleena bai; ez du aurreikusten musukoa luzaro eta etengabe erabiltzeagatik inolako arriskurik eta, ondorioz, ez dauka honetarako inongo ekintza planik. Gainera, ez du 31/1995 Lan Arrisku Prebentzioko 31/1995 Legea betetzen, zeinaren 25. artikuluan enplegatzailerak arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrek diren langileak babesteko daukan derrigortasuna jasotzen den.

Are gehiago, aipatutako protokoloak LAP Legea betetzen duen plan batean oinarrituta egon behar du, eta ez dago.

EAE-ko ikastetxeetan protokolo hau inposatzen aritu dira, Ordenamendu Juridikoa alderantzizkatuz eta, hortaz, Legalitate printzipioa hautsiz.

Baina ez bakarrik hori, egin dezagun zerrenda bat protokoloa ezartzearen ondorioz ez betetzen egon daitezkeen derrigortasun batzuekin, eta urratzen egon daitezkeen eskubide batzuekin. Kontuz, **eskubide hauek guztionak dira**, ez bakarrik musukoaren erabileratik sal-

buetsitakoena. **Arreta berezia adinez txikikoen eskubideei, ikasturtean zehar gure erantzukizunpean daude-eta.**

UNICEF, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa: 3, 5, 6, 12, 13, 14, 16, 17 eta 29 artikulua.

29. Artikulua: *Estatu alderdiek adostu dute haurren hezkuntzak helburu hau izan behar duela:*

- *B: Hurrei giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua irakastea (...)*

Espainako Konstituzioa: 1.1, 1.2, 9, 10, 14, 15, 18, 20.1.a, 20.1.d, 20.2, 20.4, 25.1, 20.3, 27.2, 27.3, 27.7, 27.8, 39.4, 43.1 eta 55 artikulua.

27. Artikulua:

- *2: Hezkuntzaren helburua giza nortasuna erabat garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatuz.*
- *3: Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, euren seme-alabek beren sinesmenekin bat datorren heziketa erlijioso eta morala jaso dezaten.*
- *7: Irakasleek, gurasoek eta, hala badagokio, ikasleek Administrazioak funts publikoekin mantentzen dituen ikastetxe guztien kontrolean eta kudeaketan esku hartuko dute, legeak ezartzen dituen baldintzetan.*
- *8: Botere publikoek hezkuntza sistema ikuskatu eta homologatuko dute, legeak betetzen direla bermatzeko.*

Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: 1, 2, 3, 4, 5, 7, 11.2, 12, 18, 19, 22, 23.1, 25.1, 26.2, 26.3, 28, 29.2 eta 30 artikulua.

26. Artikulua

- *2: Hezkuntzaren helburua giza nortasuna erabat garatzea eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea izango da (...)*
- *3: Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute beren seme-alabei eman beharreko hezkuntza mota aukeratzeko.*

Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Ovidoko Hitzarmena: 2, 4, 5, 10.1, 10.2 eta 16 artikulua.

Azaroaren 14ko 41/2002 Legea, Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren eskubideak eta betebeharrak: 2.2, 2.3, 2.6, 4, 6, 7.1, 8 eta 10 artikulua.

Orain, ahalik eta laburren, nire kasu pertsonalaren berri emango dut:

Nire salbuespena 2020ko ekainekoa da, hilaren 1ekoa, ikastetxeetara musukoaren *derrigortasunarekin* itzuli ginen eguna, hain zuzen; nahiz eta musukoa inoiz ez den derrigorrezkoa izan (ikus 21/2020 Lege-dekretu erreala, indarrean orduan).

20/21 ikasturtean, musukoa ezin izateagatik erabili, LAPZ-ak balizko infekzio-foku gisa etiketatatu ninduen eta, eskaini zidan konponbide bakarra aldi baterako ezintasuna tramitatzea izan zen. Horrek "aldiak" 10 hilabete iraun zituen, ikasturte osoa. Ez nik ez nire medikuak, ez genuen inongo berririk eduki: ez Ikuskaritza departamentutik, ezta LAPZ-tik, ez eta Hezkuntzako

inoren aldetik ere. 2021eko ekainean nik-neuk kontaktatu nuen berriro LAPZarekin eta alta tramitatu nuen hilaren 30eko datarekin, adierazi zidaten bezalaxe.

21/22 ikasturtea berdintsu hasi zen, ezberdintasun bakarrarekin: oraingoan baneuzkan lege eta eskubideei buruzko ezagutza minimoak. Beraz, LAPZak aldi baterako ezintasuna tramitatzeari agindu zidanean, hori egiteaz gain, abokatu batekin ere, jarri nintzen harremanetan (eskerrik asko, Scabelum!). Nire salbuespen eskubidea gauzatzuz lanera itzuli nahi nuen. Ez nago lan egiteko ezinduta, musukoarekin lan egiteko baizik. Irailean bertan, alta hartu nuen.

Orduan, ikuskaritzak Osakidetzako –eta solik Osakidetzako– mediku baten ziurtagiria aurkezttera derrigortu zidan. Ziurtagiri hori, ondoren, LAPZko beste mediku batek aztertuko zuen, inoiz ikusi ez nauen eta ezagutzen ez nauen batek, eta beronen menpe geratzen zen nire salbuespenaren baliozkotasunari buruzko azken hitza. Osakidetzako medikuek ere, aginduak jaso dituzte, eta hor uzten dut.

Hortaz, eta nire gorputzaren subiranotasuna nirea delako; eta nire osasun eta osotasuna babestea nire eskubide eta betebeharra direlako; eta gizaki guztion moduan, nire buruaren erantzule naizelako; eta ez 2/2021 Legeak, ezta 13/2021 Lege-dekretu errealak ez eta 115/2022 Lege-dekretu errealak, batek ere, salbuespena balioztatzeko inolako agiri ofizialen beharrik ez dutelako adierazten; eta medikuei inor musukotik salbuestea ez dagokielako; eta batez ere, eskubideak ez direlako negoziatzen: nire salbuespen ziurtagiria erantzukizunpeko adierazpena da.

Hala izanik, ikuskaritzak ukatu egiten du salbuespena naizenik, literalki “ez naizelako arduratsua” eta “musukoak kalte egiten nauen ala ez, ez dudalako nik erabakitzen, ezta ikuskariak; LAPZko mediku batek baizik”. Esaldi hauek biak aukeratu ditut bereziki larriak iruditzen zaizkidalako. Hauxe bera edozein langileri aplikatu dakioke baldin eta bere osasun eta osotasunaren erantzule izanik, hoberen deritzon moduan babestea erabakitzen badu. Gutako askori musukoak sortzen digun kalte erreala kontutan hartu eta pentsa ikasleekin egon behar dugula. Laburtuz, ikuskaritzaren arabera ikasleak ardurapean dituzten irakasleak ez dira behar besteko arduratsuak zerbaitek kalte egiten dien zehaztu eta adierazteko eta, bai-ala-bai, berdin dio zenbateko kaltea egiten dien, musukoarekin egon behar dute. Irakasle ez-arduratsuak, gaitasunak murriztuta eta beraien ardurapean ikasleak... Hausnartu dezagun...

Paradoxikoki, Hezkuntzaren Protokolo Orokorrean, 2022ko apirilaren 20ra arte, temperatura hartzeari buruz ondoko hau irakur zitekeen: “*Norberaren erantzukizunari helduz, etxean bertan temperatura hartzea gomendatuko da (...)*”. Batek ulertu!

Beraz, berriro lanean hasi ahal izateko, bai ikastetxeko Zuzendaritzatik baita Ikuskaritzatik ere, protokoloa inposatzea besterik ez dute egiten. Nire lanpostura FFP2 musukoarekin joan behar dudala esaten didate, LAPZkoek horixe motakoa aukeratu zuten-eta, inolako azalpenik eman gabe. Nire osasun eta osotasuna arriskuan jartzea onartzen ez badut eta ikastetxera musuko barik sartzen banaiz, nire eskubidea eta betebeharra den lez, Ertzaintzari deitzearekin mehatxatzen didate.

Aldi berean, nire lana betetzera ikastetxean bertaratu ezean, absentismotzat hartuko dutela esaten didate.

Gauzak honela, irailaren amaieran laneko jazarpenagatiko denuntzia jarri nuen, adiskidetze bilera eskatu ondoren. Adiskidetze bileran ez ninduten onartu musuko barik eta kale gorrian utzi ninduten nire abokatuarekin soilik elkartuz. Ikuskaritzak, bere aldetik, ustezko absentismoagatiko diziiplina-espediente baten instrukzioa hasi zuen nire kontra.

Hile luzeak eta gero, 2022ko otsailean bi urteko enplegu eta soldata etetea ebatzi zuten berriek sortutako balizko absentismo egoera niri leporatuz.

Ez zioten nire lanpostu egokitzapenaren eskakizunari erantzun, LAP Legeak behartzen duen arren.

Hezkuntza Langileen Kudeaketa Zuzendariari gertaera guztiak jakinarazi ondoren, sistemaren akats batengatik *bidegabeki* jasotako soldata eskatu zidan.

Estatuko Osasun Idazkaritzari idatzi nion. Ez zidaten eman inolako informaziorik musukoaren erabilera luze eta etengabeak agerrarazi ditzakeen albo-ondorio eta arrisku posibleei buruzkoa. Idazkaritza horrek ez ote dauka informazio hau? Ala, akaso ez du eman nahi?

Aukera guztiak agortuta, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren aurka administrazioarekiko auzien demanda jarri dugu, Legalitate printzipioa haustegatik Protokolo Orokorra inposatzekoan 2/2021 Legearen eta 13/2021 eta 115/2022 Lege-dekretu errealeen gainetik. Ikustaldia-
ren data finkatzeko zain gaude.

.Gainera, espedientearen eta Hezkuntza Langileen Kudeaketa Zuzendariaren ebazpenen aurkako kautelazko neurriak ere, eskatuta ditugu.

Justizia nagusitu egingo da eta Egia jakina izango da eta orduan, nire seme-alabek zer egin nuen galdetzen didatenean, egin behar nuena egin nuela erantzun ahal izango diet.

Eskerrik asko zuei, hain garrantzitsua izan zaidan laguntasuna erakutsi didazuen hurbilekoei.

Eskerrik asko ezagutzeko ohorea izan dudan ikasleei, zuek gogoratzeak bide hau egiten lagundu didalako, ezin ilunago zirudienean ere.

Eta, nola ez, eskerrik asko lantza honen puntan dauden lankide eta guraso ausartei, hor zaudetela jakitea oinarrizko laguntza izan delako prozesu etsigarri honetan zehar.